

Euskaltzaindiaren XIII. Jagon Jardunaldiak  
***Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak***

Bilbo, 2008-XI-21

Aurkezpena

*Andres Iñigo*  
Jagon sailburua

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak “Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak” gaia lantzeko antolatu ditu XIII. Jagon Jardunaldiak.

Euskaltzaindiari dagokio, besteak beste, hizkuntza lantzea eta arautzea, gizartearen harreman guztietarako egokia izateaz gain, euskararen erabilera indartzen joan dadin. Kontua da, kontsumoaren ingurukoa dela gaur egungo gizartearen harreman garrantzitsuenetako bat, baina segur aski, arlo sozio-ekonomikoan eta lan-munduan bezalaxe, euskarak orain arte lortu duen presentziarik eskasenetako arloa. Eta, jakina, kontsumoaren gunetan hizkuntzaren erabilera, bai idatzizko inprimaki eta errotulazioetan bai ahozko komunikazioan urratsez urrats gauzatzen joatea, euskararen normalizazioaren bidean ematen ahal den aurrerapauso sendoaren seinale litzateke.

Gai honen inguruko hausnarketa egin nahi du Sustapen batzordeak gaurko egun osoko Jardunaldi hauetan.

Goizeko saioa mintegi modura antolatu da eta bi zati nagusi izanen ditu. Alde batetik, indarberritze bidean dauden gutxiagotutako hizkuntzetan kontsumoaren ikuspegi orokorra azaldu ondotik, Euskal Herriko hiru lurralde administratiboetan euskarak kontsumoaren arloan duen presentziaren balorazioa egiteko; eta bestetik, euskararen presentzia hori indarberritzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Dekretuaren nondik-norakoak aztertzeke.

Arratsaldekoa saio irekia izanen da, bi ataletan banatua hori ere. Lehenbizikoan, Kataluniako esperientziaren berri emanen zaigu, eta bigarreanean gure inguruko kontsumoaren zenbait erakunde, elkarte, federazio eta enpresa pribaturen ordezkariak mahai-inguru batean izanen ditugu, aipatutako dekretuari buruz eta eremu pribatuetan euskara indarberritzeari buruz bere iritzia azaltzeko.

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen izenean eskerrak eman nahi dizkizuet, gure gonbita onartuz, txostenak prestatu dituzuenei, bai eta Jardunaldi hauetan gurekin parte hartzera etorri zareten guztiei.